



Auzo madarikatua

Felix Urabayen

Itzulpena: Aingeru Epaltza

Kondagintza, 50

Azal biguna: 978-84-9172-435-3 • 22 €

Azal gogorra: 978-84-9172-436-0 • 26 €

2025 - 224 or. - 17 x 24 cm

Felix Urabayenen *Auzo madarikatua* sanferminetan giroturiko lehenbiziko nobela da. 1925ean ikusi zuen argia, gaztelaniaz, Hemingwayren *The Sun Also Rises* eleberria baino urtebete lehenago. Handik sei urtera, frantsesezko edizioa plazaratu zen. Liburua argitaratu zenetik ehun urtera, Iruñeko IKF Fundazioak euskararen ondarrera ekarri nahi izan du. Pello Mari Etxenike arizkundarra, euskaldun peto-petoa, behingoz ama-hizkuntzan mintzo zaigu.

Liburuak bi eszenatoki ditu: Baztan eta Iruñea. *Auzo madarikatua* Arizkungo Bozate da, bertan kasta misteriotso eta baztertua bizi baita: agotak. Bertze gai nagusia, erran bezala, Iruñeko festak dira. Liburuak XX. mendearen hasierako sanferminetan murgiltzeko parada ematen digu.



Felix Urabayen Guindo

(*Ultzurrun-Ollaran, 1883 - Madril, 1943*)

Institutuko literatur katedraduna eta idazlea. Iruñean bizi ondoren, Toledon kokatua eta bertan Maria Mercedes de Priederekin ezkondua. Pentsamoldez aurrerakoia.

Gizon oso jantzia. Greziako historian eta mitologian aditua, pentsalari klasikoak gogoko zituen, bai eta bere garaiko idazleak ere. 1920tik 1936ra, hamabost bat liburu argitaratu zituen, bai kazetaritzako artikulu-bildumak, bai eleberriak.

Ezkertiar kritiko, zorrotz eta ironikoa, Azañak sortutako Kultura Kontseilu Nazionaleko kidea. 1936an, Toledoko Izquierda Republicanako hautagai aurkeztua. Gerra amaieran, osasunez makal, Madrilen espertxeratu zuten. Kartzelatik atera eta 1943an zendu zen, 60 urte bete gabe.

Aingeru Epaltza Ruiz de Alda

(*Iruñea, 1960*)

Lanbidez, kazetari eta itzultzaile aritua. Zaletasunez, idazlea, gazte-gaztetatik literatur printza aunitz ondutakoa, bai eleberriak (*Ur uherrak, Tigre ehizan, Rock'n'Roll, Mailuaren odola, Izan bainintzen Nafarroako errege, Gure Jerusalem galdua*), bai ipuin-bildumak (*Garretatik erauzitakoak, Lasto sua, Mendi-joak*), bai eta saiakerak eta haurrendako kontakizunak ere.

